

Intxaurrondo

Intxaurrondon kantu kantari

Azken boladan, lagunartean gutxi kantatzen dela esan ohi da. Auzoan, aldiz, ez da horrelakorik gertatu. Iaz Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkarteak (IZBE) euskal kanten ikastaroak antolatu zituen. Ikastaro arrakastatsuak izan ziren eta aurten segida izango dute.

Iaz bezala, bi ikastaro egingo dira aurten: euskaraz bata eta elebiduna bestea. Euskarazkoa astelehenetan izango da, eta elebitakoa ostegunetan, 20.00etatik 21.30-etara biak. Ikastaroak azaroaren 19-22an hasi eta maiatzaren bukatuko dira. 3.000 pezeta ordaindu beharko dira ikastarook egiteko (1.500 pezeta langabeek). Izena emateko Larrotxenera jo behar da, azaroaren 9ra bitartean. Aurten, Itziar Zamorak eta Ainhoa Ansak gidatuko dituzte kantu saioak.

Antolatzaileen arabera, iaz ekimenak harrera paregabea izan zuen. "40 lagunek parte hartu zuten ikastaro bakoi-

tzean. Oso ongi garatu ziren saioak: asteroko topaketak, afariak, kultur etxeko kantaldia, auzotik egindako kantu-jira... Horrez gain, giro oso ona izan zen. Jendeak oso kontentu bukatu zuen", jakinarazi digu Joserra Beloki IZBEko kideak.

Araua baieztatzen duen salbuespena?

Esan bezala, gero eta gutxiago abesten dela esan ohi da. Intxaurrondoko kasua, beraz, araua baieztatzen duen salbuespena izan daiteke. Zerk bultzatzen dezake, baina, auzotarra kantatzera? "Herri kanteak zerbait berezia dute, jendearen gozagarri gertatzen dena.


Iaz 80 lagunek parte hartu zuten ikastaroetan

Batzuetan, doinua bera, melodia hutsa, zaizu gustagarri; beste batzuetan, aldiz, letraren ederra edo buelta soil baten xarma. Xarma hori era desberdinez etor daiteke jantzita: halako xalotasun edo naiftasun batez, edo halako misterio urrun batez, esaterako", esan digu Belokik. Badakizu, abestea atsegin baduzu, aukera polita duzu Intxaurrondon. Ez dute abesbatza osatu nahi. Lagunartean kantatzearekin nahikoa dute.



Rai Bueno ipuin kontalari

Hilaren 7an, Rai Bueno, Oihulari klown antzerki taldeko kideak ipuinak kontatuko ditu Intxaurrondo Berri kultur etxean. Saioa 18.00etan hasiko da.



Giro polita sortu zen iaz IZBEk antolatutako kantu ikastaroetan.

Adopzioa hizpide

Hilaren 10an, Ume Alai elkarteak adopzioei buruzko hitzaldia eskainiko du Intxaurrondo Berri kultur etxean. Hitzaldia 11.00etan hasiko da.

